



ICLI 01 koadernoak:

Testuinguruaren eta uraren arazoaren analisisia

Ura eta saneamendua eskuragarri izatea giza eskubidetzat jotzen du Nazio Batuen Erakundeak. Eskubide hori beste eskubide batzuk gauzatzeko ezinbestekoa da, adibidez osasunerako, elikadurarako, etxebizitzarako eta hezkuntzarako eskubideak. Hala eta guztiz ere, gaur egun, munduko leku askotan, eskubide hau oraindik ez da betetzen.

Bizkaiko Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeek, esaterako, Ingeniería para la Cooperación - Lankidetzarako Ingeniaritzak (IC-LI), giza eskubide hori ezagutzeko, aldezteko, sustatzeko eta benetan betetzeko proiektuak egiten dituzte, tokian tokiko lekuetan nahiz mundu zabalean.

Kongoko Errepublika Demokratikoak (KED) Espainiarena baino azalera ia bost aldiz handiagoa du eta Afrikako ekuatore-ekualdean dago. Kongo ibaiaren Atlantikoko bokaletik aintzira handien eskualderaino zabaltzen da. Baliabide natural eta mineral ugari dituen herrialdea izan arren, esaterako koltana¹, hango biztanle gehienak muturreko pobrezian bizi dira. Eskualdeko etengabeko gatazka belikoek izugarri zailtzen dute garapen sozial eta ekonomikoko ekimen oro.

Herrialdearen ipar-ekialdean, Ruandarekiko mugan dago Kivu aintzira, eta aintziraren erdian **Idjwi uhartea** dago. Duen koka-penagatik, gatazka armatuetatik ihesi eta bizi hobe baten bila doazen biztanleen babesleku bilakatu da. Baina osasun- eta hezkuntza-arloko oinarrizko zerbitzuen eskasiaren, argi eta urik gabeko etxebizitza prekarioen eta ogibide eskasen ondorioz, uharteko eguneroko bizimodua oso gogorra da.

Testuinguru politiko, ekonomiko eta soziala

Idjwi uharteak 310 km²-ko azalera du eta 200.000 biztanle. Horrek esan nahi du 650 biztanleko **biztanle-dentsitatea** duela kilometro karratuko (Euskal Herrikoaren bikoitza baino handiagoa).

Ofizialki 2003an sinatu zen bakea eta hainbat alderdi politiko eta talde matxinoren ordezkariak osatutako batasun nazionaleko gobernuaren ezarri zen baina, hala ere, indarkeria-agerraldiak izaten dira tarteka. **Krisi politikoaz** gain, herrialdeak **krisi ekonomikoa** ere badu: herritar gehienak eguneko dolar batekin bizi dira. Estatuko erakundeek ahuleziak bizitza duin baterako oinarrizko azpiegiturak eraikitzea galarazi du, batez ere landa-inguruneetan: ez dute sare elektrikorik ez errepiderik, beraz, oso zaila da pertsona eta salgaien garraioa. Uholde-uriek, bestalde, maiz eragiten dituzte luiziak, bideak blokeatuz eta errekek lokatza bihurtuz. Bukavu probintziako hiriburura joateko, Kivu aintzira zeharkatu behar da motordun txalupa txikietan edo salgaien ontzietan, 5 ordu irauten duen zeharkaldian.



Idjwi uhartea, Kivu aintziran dagoena

¹ Koltanak tantalio izeneko elementu kimikoa dauka, telefono mugikorrek, GPS gailuak, sateliteak eta komunikazioko beste aparatu teknologiko batzuk fabrikatzeko ezinbestekoa dena



Ur-ekasiak eta bizi-baldintza osasungaitzek familien osasunari eragiten diote

Uharteko etxe batzuk adreiluzkoak dira, baina gehienak buztin eta kanaberazkoak dira eta lastozko sabaia dute. Familiak ahaidetasunagatik edo hurbiltasunagatik biltzen dira herrixka txikietan. Haur-biztanleria oso zabala da (% 45 14 urtetik beherakoak dira²), familia bakoitzak 4 seme-alaba izaten dituelako batez beste. Bizi-itxaropena 52 urtekoa da.

Oinarrizko osasun-laguntza (prebentziozko medikuntza, sendaketa txikiak, haurdunaldiak hautematea eta jarraipena egitea, familia-plangintza, etab.) **herrixketako osasun-zentroetan egiten da**, erizain edo laguntzaileen kontsultan. Uharteko 21 osasun-etxeetako 4tan erditzeak arrisku gutxiagorekin egiten laguntzen duen emagin bat ere badago. Hala ere, medikuek artatzen ez dituzten erditzeetan, haurren hilkortasun-tasa 128koa da mila jaiotzako. Uhartean osoan **ospitale** bakarra dago eta, hilean behin, gutxi gorabehera, medikuak

herrixketako osasun-zentroetara joaten dira pazienteez arduratzeko.

Eskolatzemaila oso baxua da. Gizonezkoen % 58 eta emakumeen % 51 soilik iristen dira bigarren hezkuntzako ikasketak egitera, UNESCOk 2012an emandako datuen arabera³, eta aukera gutxi dituzte beren gaitasunak, balioak eta printzipioak garatzeko.

Emakumearen egoerari dagokionez, Kongoko herritar gehienek pentsamolde matxista dute eta, oro har, emakumeek lantzen dute lurra, ura ekartzen dute eta manioka (edo juka) ehotzen dute, eta emakumeak dira hezkuntzan aurrera egiten duten gutxienekoak. Oso gazte uzten dituzte ikasketak etxeko lanetan jarduteko eta heldutasunera iristen direnean seme-alabak hezteaz eta etxea zaintzeaz arduratzen dira. Ez dute ia ezertan parte hartzen komunitatearen antolaketa-esparruan. Horri gehitu behar zaizkio sexu- eta genero-indarkeriako hainbat eta hainbat kasu izaten direla eta erantzuleak oso gutxitan zigortzen dituztela.



Edateko, sukalderako eta garbitzeko ura lortzea emakumeei esleitutako zeregina da

² http://www.unicef.org/spanish/infobycountry/drcongo_statistics.html

³ <http://www.uis.unesco.org/DataCentre/Pages/country-profile.aspx?code=COG®ioncode=40540>

Zigorgabetasun horren aurrean, emakume gehienek isilik geratzea eta salaketarik ez jartzea aukeratzen dute erasotzaileen errepresaliarik ez izateko.

Ingurumen- eta produkzio-testuingurua

Kongoko Errepublika Demokratikoak baliabide natural ugari ditu, esaterako, basoak, soroak, sare hidrografiko zabala, mineralak (koltanaz gain, diamante, urre, kobalto eta kobre meategiak daude). Baina baliabide horien gozamina eta aprobetxamendua modu ez-jasangarrian eta antolatu gabean egiten da, bai Kongoko estatuaren aldetik nahiz enpresa erazle pribatuen aldetik. Enpresa horietako gehienak atzerriarrak dira eta lanpostuak baldintza osasungaitzetan eta oso soldata txikiekin eskaintzen dituzte.

Idjwi uharteko klima-baldintzak tropikalak dira: tenperatura epelak eta euri ugari. Baldintza horiei esker, frutak, manioka, artoa, kakahuetea eta azukrekanabera dituzte, beste produktu batzuen artean.

Nekazaritza da inguruko ekoizpen-jarduera nagusia (familien % 97 horretan aritzen dira). **Neurri apalagoan, arrantzan eta merkataritzan** (% 3) dihardute, hain zuzen ere, manioka, bananak eta tipulak saltzen dituzte Bukavu hirian. Eskala txikiko nekazaritza da, batez ere autokontsumokoa eta nekazaritzatresna baldarrak erabiltzen dituen. Laboreak eta arraina izan arren, bertakoen dieta oso pobrea da eta umeen % 44k nutrizio-eskasia larria edo oso larria dute. Ekonomia-jarduera horietatik lortzen dituzten diru-sarrerak, gutxi gorabehera, 30 dolarrekoak dira hileko eta familiako, bizirik irauteko gutxienekoak.

Uraren arazoa

Esku-hartzearen eremuan, ospitaleak eta Mariaren Lagundiko mojen ardurapeko institutu batek soilik dute ur-horniduraren zerbitzua. Biztanleen % **94k ez du ur edangarririk** eta, jakina, ez dute saneamendu egokirik ere.

Kivu aintzira da uharteko biztanleen bizitzaren jatorria, bai eta haietako askoren heriotzarena ere, hango urek kutsadura-maila altua dutelako. Kivu aintziraren zorupean metano gasaren eta beste gas batzuen erreserba natural handiak daude. Ameriketako Estatu Batuetako enpresa batek ustiatzen ditu. Ustiapen horrek bertako biztanleei onurarik ez ekartzeaz gain, aintzirako urak kutsatzen ditu eta horrek pertsonen osasunari eragiten dio.



Txalupa motordunetan joaten dira Bukavu hirira produktuak saltzera edo eroatera



Kivu aintziraren hondoan milaka milioi metro kubiko metano daude



Umeak jostatu egiten dira eskolatik itzultzean ur-bidoiak betetzen dituzten bitartean

Mendien goialdean, jendea bizi dena baino askoz leku garaiagoetan, badira kontsumorako kalitate oneko iturburuak, baina horietara iristeko asko ibili behar da malda handiko lekuetan barrena. Horregatik, biztanleak aintzirako urez edo herrixka inguruko erreketako urez hornitzea da ohikoena, eta erreka horietako urak ere dezente lokaztuta daude eta, sarritan, herrixkako isuriek eta animaliek eragindako kutsadura izaten dute.

Uharteko uraren hoditeria-sistemak etxebizitzan % 6 baino ez du hartzen eta, ondorioz, bizilagunek 3 kilometroko ibiliak egin behar izaten dituzte etxeko kontsumorako urez hornitzeko. Emakumeek beren gain hartu behar duten eguneroko zeregin horrek hezkuntzarako edo ekonomia-jardueretarako denbora izatea eragozten die.

Ur nahikoa eta kalitate onekoa ez izateak eta osasun-baldintza prekarioek heriotza-tasa altua izatea eragiten dute. Kolera, goloa (tiroidearen gaixotasuna) eta urarekin lotura duten gaixotasunak, esaterako, disenteria eta amebiasia, ia-ia endemikoak dira inguru horretan. Gaixotasun horiek umeengan duten eragin handia lotuta dago eskola-absentismoarekin.

Gauzak horrela, IC-LI GGKE hango bizilagunek ur edangarria eskuratzeko baldintzak hobetzeko eta, horrela, eskubide hori eta oinarriko beste giza eskubide batzuk izan ditzaten ari da lanean Idjwi uhartean. IC-LIk bertako bizilagunen zerbitzura jarri ditu ur-hornidurarako azpiegiturari buruzko ezagutza teknikoak eta bizilagunen ahalmenak indartzeko estrategiak, modu antolatuan eta jasangarrian kudea dezaten ura.

Egilea: Ingeniería para la Cooperación – Lankidetzarako Ingeniaritza (ICLI) eta Asociación Zabalketa de Cooperación y Desarrollo

Argazkiak: ICLI | **Kofinantziazioa:** Bizkaiko Foru Aldundia | **Diseinua eta maketazioa:** Seteseoito | **Inprimaketa:** Imprenta Garcinuño | **Lege Gordailua:** BI-371-2016

DHAS Bizkaiko taldearen, ICLIn, eta Zabalketaren web-orrietan ere eskuragarri dago, gaztelaniaz nahiz euskaraz

www.forobizkaiaadhas.org / www.icli.info / www.zabalketa.org